dohaintzan. Gasteizen hain ezaguna den Heraclio Fournier karta fabrikaren zuzendaria izan zen (bere aitonak eratu zuen), San Fernando Akademiako kide ere izan zen, Arabako Aldundiko Kultura Batzordeko kidea, Arma Museoko mezenasa eta Fournier Karta Museoaren sortzailea. Bere bilduma zaletasunak eta esku zabaltasunak Arabako museo funtsen gehitzea ekarri zuen. Jaiotzekiko zuen lotura Jaiotzazaleen Espainiako Federazioaren Sariarekin aintzatetsi zitzaion, Arabako Jaiotzazaleen Elkartearen proposamenez, 1989an Ourensen egindako XXVII. kongresuan.

Jaiotza osatzen duten irudiak Italian erosi zituen eta Arabako Foru Aldundiari eman zizkion dohaintzan XX. mendeko 50eko hamarkadan. Jaiotza garai hartan Museo Probintzial deitutakoan jarri zen, Augustinen Jauregiko beheko solairuan, kaperaren aurrean. Carlos Saenz de Tejada margolari eta ilustratzailea izan zen muntaia egitearen arduraduna. Basamortuko paisaia sortu zuen iztuparen gainean eskaiola erabiliz eta tenplean egindako pintura bidez, eta Misterioa harkaitz batzuen babesean jarri zuen, zeru-gangaren azpian. Jaiotza 1983an zaharberritu zen eta, 1987an, berriro garbitu, eta eszenagrofia finkatu zitzaion. Arte Ederren Museoa berriro antolatzeak napoliko jaiotza desmuntatzea ekarri zuen 2000. urtean, leku egokiago batean jartze aldera. 2003. urtean, jendaurrean jarri zen Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan, Vitoria-Gasteizko katedral berrian. Arabako Foru Aldundiaren mandatuz, Arabako Jaiotzazaleen Elkarteko lehendakari Pedro Pablo Gonzalez Mecolayri eszena berri bat sortzea eskatu zitzaion, eszena irudien estilora eta garaira egokitze aldera.

Gasteizko napoliko jaiotzak 56 irudi dauzka, buztin, zur, hari, iztupa, soka eta ehunez egindakoak. Irudi horietatik, 38 giza irudiak dira, hiru eskalatan eginak muntaian sakontasun sentsazioa lortzeko. Aurpegien barietateak eta irudien jarrera ezberdinek egiazkotasuna bilatzen dute. Adin eta arraza ezberdineko pertsonaiak agertzen dira, bakoitza bere egoera sozialaren arabera jantzia: erregeak luxuzko oihalarekin, artzainak arropa latzez jantziak eta herritarrak garaiko erara jantziak. Animaliek errealismo handia adierazten dute bai euren formetan bai euren jarreran. Perfekzio handiz egindako animalia exotikoak eta elikagai ñimiñoak agertzen dira, xelebrekeri eta bitxikeriekiko gustuaren erakusgai.

La reorganización del Museo de Bellas Artes determinó que el belén napolitano se desmontara en el año 2000 para ser colocado en otro emplazamiento más adecuado. En el año 2003, vuelve a exponerse al público en el Museo Diocesano de Arte Sacro, situado en la catedral nueva de Vitoria-Gasteiz. Por encargo de la Diputación Foral de Álava, Pedro Pablo González Mecolay, Presidente de la Asociación Belenista de Álava, asume el encargo de crear un nuevo escenario en concordancia con el estilo y la época de las figuras

El belén napolitano de Vitoria-Gasteiz está formado por un conjunto de 56 piezas de barro, madera, alambre, estopa, cuerda y tejidos. De ellas, 38 son figuras humanas realizadas en tres escalas diferentes para lograr sensación de profundidad en el montaje. La variedad de rostros y actitudes de los personajes responde a una búsqueda de veracidad. Se representa a personajes de distintas edades y razas, cada cual vestido de acuerdo a su condición social: reyes con lujosas telas, pastores con bastas ropas y ciudadanos ataviados al estilo de la época. Los animales muestran gran realismo en sus formas y naturalidad en sus posturas. La presencia de animales exóticos o de diminutos alimentos, realizados con gran perfección, refleja el gusto por lo pintoresco y lo anecdótico.



**Arabako Jaiotzazaleen Elkartea • Asociación Belenista de Álava**




**Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa**
Cadena y Eleta Apezpikuaren kalea, z/g
01008 Vitoria-Gasteiz
Informazioa: 945 150 631
museoartesacro@euskalnet.net

**Ordutegia:**
Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara
eta 16:00etatik 18:30era
Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara
Igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara
Astelehenetan: Itxita

**Museo Diocesano de Arte Sacro**
C/ Monseñor Cadena y Eleta, s/n
01008 Vitoria-Gasteiz
Información: 945 150 631
museoartesacro@euskalnet.net

**Horario:**
Martes a viernes: de 10:00 a 14:00
y de 16:00 a 18:30 h.
Sábados: de 10:00 a 14:00 h.
Domingos y festivos: de 11:00 a 14:00 h.
Lunes: cerrado

Arabako Foru Aldundia
Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Diputación Foral de Alava
Departamento de Euskera, Cultura y Deportes

Arabako Jaiotzazaleen Elkartea
Asociación Belenista de Álava

Diócesis de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa
Museo Diocesano de Arte Sacro

# Napoliko jaiotza
# El belén napolitano



## *Gabonetako adierazpenak*

Liturgia osatzeko hasi ziren Jesusen jaiotza adierazten, fededunei Jainkoaren Semearen Gizakundeko Misterioa argitze aldera. Artzainen berriona, erdainkuntza, Erregeen gurtza, errugabeen hilketa eta jaiotzarekin lotutako beste hainbat gertaera gabonetako adierazpen horretan jaso, eta garrantzia lortzen joan ziren. Erdi Aroan, usadio hori Europako hainbat herrietatik hedatu zen eta gaur egun ezagutzen dugun jaiotza eratzen joan zen, era berean, jaiotzaren inguruko hainbat jarduera sustatu zirelarik: narrazioak, opariak, musika konposizioak, etab.

Etxeetan jaiotza jartzeko ohitura zabaldu zen, etxeko esparruan erlijiozko bizipena gordetzeko era gisa. Jaiotza, herri erlijiotasunaren



## *Las representaciones navideñas*

La representación del Nacimiento de Jesús se inició para complementar la liturgia, ilustrando a los fieles el Misterio de la Encarnación del Hijo de Dios. El anuncio a los pastores, la circuncisión, la adoración de los Reyes Magos, la matanza de los inocentes y otros episodios relacionados con el Nacimiento se irán incorporando y ganando importancia en la representación navideña. Durante la Edad Media, la usanza se fue extendiendo por diversos países de Europa y se empezó a configurar el belén tal y como lo conocemos, propiciando, así mismo, una serie de actividades que se llevaban a cabo en torno a él: narraciones, ofrendas, composiciones musicales, etc.

La costumbre de poner el nacimiento se expandió a los hogares como una forma de mantener la vivencia religiosa también en el ámbito doméstico. El belén, como expresión de la religiosidad popular, se fue colmando de contenidos simbólicos y alcanzó su máximo esplendor en el Barroco. Los belenes, generalmente fabricados con materiales pobres, logran niveles de calidad y belleza importantes y, en algunas ocasiones, llegan a considerarse verdaderas obras de arte.

## *El belén napolitano*

En el reino de Nápoles se configuró un tipo de belén con personalidad propia, que destaca por su calidad artística y por su riqueza escenográfica. La habilidad e imaginación de los artistas consiguieron

adierazle, eduki sinbolikoz betetzen joan zen eta, Barrokoan lortu zuen osperik handiena. Jaiotzak, normalean material pobrez eginak, kalitate eta edertasun maila bikaina lortu zuen, askotan artelantzat ere har zitekeena.

## *Napoliko jaiotza*

Napoliko erreinuan berezko jaiotza itxuratu zen, kalitate artistikokoa eta eszenografia aberatsekoa. Artisten trebezia eta irudimenak benetako miniaturazko hiriak ahalbidetu zituzten eta irudiz, adierazkortasunez, eszena pintoreskoz eta errealitatez betetako hiri hobezinak lortu zituzten. Napoliko presepiek Jesusen Jaiotza XVIII. mendeko hiri baten eguneroko bizitzan integratu zuten, jaiotzaren alderdi sinboliko eta doktrinala alboratuz.

Espainiako Karlos III.a izan zenaren jaiotzazaletasunak Napoliko Erresuman jaiotzak zabaltzea eta errotzea ekarri zuen. Izan ere, gabonetako eszenekiko gustuak gortean jaiotzak jartzea sustatu zuen eta, erregeari jarraituz, noble eta goi mailako burgesek ere euren etxeetan jarri zituzten. Jaiotza zaletasuna bilduma lehiaketa bihurtu zen eta horren zerbitzura jarri ziren gero eta artista gehiago.

Irudien eskari handiaren ondorioz, produkzioaren gorakada bilatu nahi izan zen kalitateari eutsiz. Horrela sortu ziren berezko irudi batzuk, tamaina maneiagarria zutenak baina xehetasunak bereiztea ahalbidetzen zutenak (terzina: 30-40 cm, erdiko eszenako irudientzako).

Napoliko jaiotzetako irudiek iztupaz estalitako burdin harizko egitura daukate eta oso hari mehearekin lotzen dira. Horrela, gorputzen jarrera alda daiteke, egurrezko irudien artikulazioek duten hauskortasuna saihestuz. Buruak, terrakota polikromatuan, xehetasun handia lortzen du eta pertsonaiari bere izaera ematen dio: adina, arraza, adierazkortasuna, etab. Gorputz-adarrak zur polikromatuan lantzen ziren eta eskuak batzutan buztinezkoak egiten ziren. Artista gailenek buruak (testina) bakarrik egiten zituzten eta, gutxitan, eskuak; irudiak eramango duen tresnak edo hartuko duen jarrerak mugatzen baitute eskuen posizioa.

crear verdaderas ciudades en miniatura, pobladas de figuras que lograban una perfección extraordinaria en su verismo, en su expresividad y en su gusto por lo pintoresco. Los "presepi" napolitanos, relegando el aspecto simbólico y doctrinal del belén, integraron la escena del Nacimiento de Jesús en el ambiente cotidiano de una ciudad del siglo XVIII.

La afición del futuro Carlos III de España, durante su reinado en Nápoles, contribuyó a la difusión y arraigo de los belenes, ya que su gusto por este tipo de montajes navideños fomentó su instalación en la corte y, por imitación, en los hogares de la nobleza y la alta burguesía. La afición por el belén se transformó en un coleccionismo competitivo a cuyo servicio se pusieron cada vez un mayor número de artistas.

La gran demanda de piezas llevó a buscar una mayor rapidez en la producción manteniendo la calidad artística; así surgieron unas características figuras que con un tamaño manejable permiten apreciar los detalles ("terzina": de 30 a 40 cm. para las destinadas a la escena media).

Los personajes del belén napolitano están formados por un esqueleto de alambre forrado de estopa que se sujeta mediante cuerda muy fina; estos maniquíes permiten el cambio de postura y evitan la fragilidad de las articulaciones de los cuerpos de madera. Las cabezas, de terracota policromada, alcanzan gran minuciosidad y dan carácter al personaje: edad, raza, expresividad, etc. Las extremidades se tallaban en madera policromada, las manos se realizaban algunas veces en barro. Los artistas más destacados solo intervenían en la fabricación de las cabezas ("testinas") y rara vez en las manos, cuya posición está determinada por el accesorio que ha de llevar o la postura que el personaje ha de adoptar.

Las figuras se complementan con vestidos que responden a modelos reales, realizados con verdadero primor y que se sujetan a los cuerpos mediante alfileres. Finalmente un número elevado de accesorios ("finimenti"), tales como joyas, instrumentos musicales, armamento, útiles domésticos, herramientas e incluso alimentos, fabricados en muy diversos materiales (barro, cera, vidrio, plata, hueso, ébano, marfil...). Todo ello contribuye a lograr una perfección y minuciosidad nunca alcanzada hasta ese momento.

Irudiak benetako ere- duen gainean trebetasunez egindako jantziekin janzten dira. Jantziak orratzen bidez lotzen zaizkie gorputzei. Bukatzeko, hainbat osagarri (finimenti) darabilte, besteak beste, bitxiak, musikatresnak, armak, etxeko tresnak, erremintak eta elikagaiak, hainbat materialez (buztin, zilar, hezur, ebano, boli...) egindakoak. Guzti horren ondorioz, ordura arte inoiz lortu ez zen hobezintasun eta zehaztasuna erdietsi zen.

Idealizatutako edertasuna duten Misterioko irudi horiek, aingeru-koruekin batera, aurrian dauden arkitektura klasikoetan kokatuak, ia hiriko zalapartaren beste eszena bat osatzen dute. Erregeen Desfilea aitzakia aparta da jaiotzan osagai exotikoak sartzeko. Askotan Napolira heltzen ziren kanpoko enbaxadetan inspiratzen ziren. Giza irudi (pastori) eta horien osagarri guztiez gain, Napoliko jaiotzan berebiziko garrantzia dute animaliek, bikaintasunez eginak horiek ere.

## *Vitoria-Gasteizko Napoliko jaiotza*

Gasteizen dugun napoliko jaiotza Felix Alfaro Fournier mezenas ezagunak eman zuen



Las figuras del Misterio y los coros angélicos que las acompañan, de belleza idealizada y casi siempre situadas en arquitecturas clásicas en ruinas, quedan integradas casi como una escena más entre el bullicio urbano. La cabalgata de Reyes, a veces inspirada en las auténticas embajadas extranjeras llegadas a Nápoles, constituye un magnífico pretexto para introducir elementos exóticos en el montaje navideño. Además de la gran variedad de figuras humanas ("pastori") con todos sus complementos, otro elemento importante del belén napolitano son los animales, realizados también con una gran perfección.

## *El belén napolitano de Vitoria-Gasteiz*

El belén napolitano que se conserva en Vitoria-Gasteiz fue donado por el destacado mecenas Félix Alfaro Fournier, director de la reconocida empresa vitoriana de naipes Heraclio Fournier, creada por su abuelo; fue también Académico de San Fernando, miembro del Consejo de Cultura de la Diputación de Alava, mecenas del Museo de Armería y fundador del Museo Fournier de Naipes. Su afán coleccionista y su carácter generoso contribuyeron a incrementar notablemente los fondos museísticos de Álava. Su vinculación al belenismo fue reconocida con el Trofeo Federación Española de Belenistas, otorgado, a propuesta de la Asociación Belenista de Álava, en el XXVII Congreso Anual, celebrado en Orense en el año 1989.

Las piezas que componen el belén fueron adquiridas en Italia y donadas a la Diputación alavesa en los años 50 del siglo XX. Se instalaron en el entonces llamado Museo Provincial, en la planta baja del palacio de Augusti, frente a la capilla. El pintor e ilustrador Carlos Sáenz de Tejada fue el encargado de realizar el montaje; mediante escayola sobre estopa y pintura al temple creó un paisaje desértico, con el Misterio situado al abrigo de unas rocas bajo una bóveda celeste. El belén fue restaurado en el año 1983 y se procedió a una nueva limpieza del conjunto y a la consolidación de la escenografía en el año 1997.